

II. NAZIOARTEKO MINTEGIA

Emakumeen Giza Eskubideak Afrikan

Azken memoria
2020ko abenduaren 21a



Nazioarteko Elkartasuna
Solidaridad Internacional



Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzeko, Nazioarteko Elkartasuna – Solidaridad Internacional erakundearen II. Nazioarteko Mintegia – Emakumeen Giza Eskubideak Afrikan antolatu genuen, online, joan den 2020ko abenduaren 10ean, 09:45etik 19:30era.

Bigarren edizio honen helburua zen kontinente afrikarrean emakumeen giza eskubideak zein egoeratan dauden ezagutzera ematea, bai eta bertan eskubide horien alde borrokatzeko, haiek sustatzeko eta bermatzeko ekimenen berri ematea ere, emakume aktibista eta aditu afrikarren ahotik.

Lehen edizioan bezala, ikuspegi holistikotik heldu nahi genion Afrikako emakumeen giza eskubideen egoerari; alegia, sexu- eta ugalketa-eskubideen, eskubide zibil eta politikoen, eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen urraketa eta aldarrikapena ezagutuz. Gainera, emakumeen euren ahotik jakin nahi genuen, emakume aditu eta aktibista afrikarren ahotik, hain zuzen, hainbat eskualde, jatorri eta kulturatakoak eurak.

Edizio honetan, COVID-19aren pandemiak garrantzi nabarmena izan zuen. Batetik, andreen eskubideetan, bereziki osasun-eskubidean, izango dituen ondorioez mintzatu ginen; bestetik, Mintegia erabat online egitera behartu gintuen, eta, hori dela eta, Afrikan bizi diren edota hangoak diren emakumezko adituak (Kongoko ED, Senegal, Benin, Ekuatore Ginea, Maroko, Kamerungoak...) gure artean eduki ahal izan genituen.

Era berean, eskubide zibil garrantzitsu baino garrantzitsuagoen aldeko borrokei eta aldarrikapenei leku egin nahi izan genien, Afrikako LGBTI kolektiboarenei, kasu, Sudanen 2019an bezala emakumeek protagonizatu eta bultzaturiko iraultzen parte diren heinean.

Gure bazkideek Afrikan egiten duten lana eta, zehazkiago, emakumeen eskubideak eta indarkeriarik gabeko bizitza defendatzeko haien zuzeneko lan-esperientzia partekatzea izan zen bigarren edizioaren beste oinarrietako bat.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu Mintegi osoan izan ziren lagun guztiei (ehun baino gehiago) bertaratzeagatik, parte hartzeagatik eta Afrikan andreen giza eskubideak sustatzeko agertutako konpromisoagatik, bai eta ekimena ahalbidetu zuten erakunde laguntzaileei ere: Bilboko Udala, Anesvad Fundazioa eta Bizkaiko Foru Aldundia.

Hitzaldia:

Lege-bulegoen ekintza Senegalen emakumeen eskubideak babesteko

- Hizlaria: Mame Seye Gueye, Emakume Legelari Senegaldarren Elkartea (Senegal)
- Orduetgia: 10:00 – 11:00
- Metodologia: hitzaldiak 40 minutuko iraupena izan zuen; gainerako denbora publikoaren galderak erantzuteko baliatu zen.

Hitzaldiaren laburpena:

Mame Seye Gueyek emakumeek eta haurrek Senegalen pairatzen dituzten indarkerien egunerokotasuna azaldu zuen, eta arazoa hutsala bihurtu dela adierazi. Hori dela eta, Emakume Legelari Senegaldarren Elkartea esku hartzea erabaki zuen, 2014an, Kébémérreko Departamenduan doako laguntza juridikorako zerbitzua ezarrita. Bulego horien misio nagusia da emakume zein neskatuen eskubideak babestea eta indarkeria-mota guztien (fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa eta sexuala) aurkako prebentzioa eta borroka egitea. Aholkularitza herrialdeko errealitatea ezagutzen duten emakume legelariak osatzen dute, eta, haien esanetan, haiengana jotzen duten biktime gehienek ez dituzte ezagutzen ez beren eskubideak ez horiek egikaritzeko baliabideak.

Kébémérreko lege-bulegoa ireki zenetik, 77 kasu artatu dira; horietatik % 99 emakumeak dira, eta asko adingabeak. Laguntza juridikoa eskatzeko arrazoen artean, honako hauek daude, besteak beste: ezkontideak etxetik kanporatu izana, ezkontidearen aldetik mantenurik eza, aitatasuna ukatzea eta sexu-jazarpena.

Lege-bulegoetan eskaintzen den aholkularitza juridikoa babesean, entzute aktiboan, zaintzan eta laguntzan oinarrituta dago. Lehenik eta behin, egoera bakoitzean aplikatu daitezkeen lege-prozedu-



ra azaltzen zaie. Behin prozedura judizial hori abiatuta, emakumeetako askok geldiarazi nahi izaten dute; izan ere, salatuz gero, mehatxuak jasotzen dituzte. Horregatik, prozesuarekin aurrera jarrai dezaten, aholkularitza-bulegoan babesa eta laguntza ematen dizkiete biktimei: doako laguntza mediko, psikologiko eta juridikoa, baita ostatua ere, halakorik ez badute. Orobat, aholkularitzak bitartekari-lana egiten du auzitegiara jo behar gabe ebatz daitezkeen kasuetan.

Azkenik, aholkularitza-lanaz batera, sentsibilizazio-ekintzak egiten dituzte (hitzaldiak, ate irekiko jardunaldiak, irratsaioak, etab.) giza eskubideak aitortzea xede duten tokiko ekintzak gauzatzeko gaitasunak garatzeko asmoz.

Hitzaldia:

COVID-19aren krisiaren ondorioak emakumeen osasun-eskubideetan. Beningo kasua

- Hizlaria: Marie-Claire Degnon, Wildaf Sarearen Koordinatzaile Laguntzailea (Benin).
- Orduetgia: 11:00-12:00
- Metodologia: hitzaldiak 40 minutuko iraupena izan zuen; gainerako denbora publikoaren galderak erantzuteko baliatu zen.

Hitzaldiaren laburpena:

Marie Claire legelaria eta Wildaf sarearen koordinatzailea da. Sare horrek, 1999. urtetik, Beninen emakume eta neskatilen eskubide sozial, politiko eta kulturalak aitortzeko eta eraginkortasunez defendatzeko lanean dihardu. Horretarako, emakumeen eragin handiagoa sustatzen du gizarte-mailan, legegintza-aren alorrean eta erakundeen esparruan, aipatu alderdiei buruzko prestakuntza eskainiz.

Marie Clairek COVID-19aren krisiak Beningo emakumeen osasun-eskubideetan izan dituen ondorioak nabarmendu zituen, hainbat arrazoiengatik zaugarritasun-egoera etengabearen dauden andreen eskubideetan, hain zuzen. Lehenik eta behin, etxeko lanen gainkarga jasan dute, eskolak eta gizarte-jantokiak itxi eta higiene- nahiz desinfekzio-neurriak areagotu izanaren ondorioz.

Bigarrenik, pandemiak zailtasunak eragin dizkie emakumeei zenbait zerbitzu baliatu ahal izateko, sexu- eta ugalketa-osasunarekin, jairo aurreko

osasunarekin eta amatasun-osasunarekin, eta familia-plangintzako kontsultekin loturikoak. Gainera, eskolak itxita, bertan behera geratu dira erakunde horiek ematen dituzten entzute- eta aholkularitza-zerbitzuak, hala nola preberatiboen banaketa edo COVID-19tik babesteko neurri buruzko prestakuntza. Egoera horretan, eta nahi gabeko haurdunaldien kopurua areagotuta, % 20 murriztu dira erditzeak osasun-zentroetan, emakumeek kutsatzeko beldurra jota etxean erditzea nahiago dutelako. Garrantzitsua da azpimarratzea landa-eremuetan andrazkoek are zailagoa dutela aipatu zerbitzuak eskuratzea.

Egoera horren eta COVID-19ak eragindako etxeko konfinamenduaren ondorioz, etxeko indarkeriak, behartutako ezkontzak eta haurren ezkontzak ugartu egin dira, baita haurren prostituzio-kasuak ere.

Ondorio gisa, neurri zuzentzaileak ezarri badira ere, Beningo familiei laguntzeko zentroak, kasu, Marie Clairen proposamena da azaldutako egoera arintzeko beharrezko neurriak hartzea: herritarrak sentzibilizatzea, emakumeei zor zaien errespetuan eta haien duintasunean oinarrituriko hezkuntza zabaltzea, eta gizonak ekintza horietan inplikatzeko, besteak beste.



Mahai-ingurua: *LGTBI mugimendua kontinente afrikarrean*

- Hitzaldiak:

- Emakume homosexualen salerosketa Ekuatore Ginean

- Juanita Obono Abecara Eyang, SOMOS parte del mundo kolektiboa (Ekuatore Ginea)

- LGTBIIQ+ afrikar kolektiboaren zaurgarritasuna: homosexualen kontrako Afrika eta immigrazioaren kontrako Europa

- Danielle Nicole Mboume, Dia-Dia África Libertad elkarte (Kamerun)

- Lesbianak eta bisexualak: emakume ikusezinak LGTBI borrokan Marokon

- Ibtissame Betty Lachgar, Mouvement Alternatif pour les Libertés Individuelles (Maroko)

- Ordutegia: 12:30-14:00

- Metodologia: hizlari bakoitzak 20 minutuko hitzaldia egin zuen; ondoren, ordu erdiz, publikoaren galderak erantzun ziren.

Laburpena:

Mahai-inguru honetan, Bettyk, Daniellek eta Juanitak, bakoitza Afrikako herrialde batekoa, LGTBI emakumeek bizi dituzten egoera zaurgarri bezain diskriminatzailea eta gizarte-bazterkeria azaldu zituzten, bai eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko borrokatzen diren ekimen kolektibo eta antolatua ere, zeinetan eurek parte hartzen duten.

Lehenik, Bettyk LGTBI borrokan emakume lesbianek eta bisexualak bere sorterrian, Marokon, jasaten duten ikusezintasuna azaldu nahi izan zuen, bereziki. Marokoko mugimendu feministak, borroka feministaren barruan, ez ditu bi kolektibo horiek onartzen; are gehiago, homosexualitateak eta ezkontzaz kanpoko sexuak 3 urtera bitarteko espetxe-zigorra jasotzen dute, eta andre ezkongabeak prostitutatza jotzen dira. Ondorioz, LGTBI mugimenduaren borroka bereziki gaitza da Marokon. Lege-babesaren beharra dutela adierazi zuen hizlariak; izan ere, Marokoko legeria islamismotik eratorria denez, desberdintasunean, misoginian, homofobian eta gizonen nagusitasunean oinarritutako hezkuntza du ondorio, hausnarketari lekuri egin gabe eta sexu-hezkuntza legez kanpokotzat jota. Diskriminazio sexista horiei aurre egiteko, Askatasun Indibidualen

Aldeko Mugimendu Alternatiboak desobedientzia zibileko kanpainak eta ekintzak antolatzen ditu.

Bigarrenik, Danielle kamerundarrak, gizarte-laguntzailea bera, LGTBI kolektiboaren egoeraren berri eman zuen, eta Afrika homosexualen kontrako kontinentea eta Europa immigrazioaren kontrako direla adierazi. Bi arrazoi eman zituen iritzi hori azaltzeko: batetik, LGTBI emakumeek Afrikan jasaten duten arbuio eta gizarte-bazterkeria, ihes egitera behartzen dituen; bestetik, Europari dagokionez, LGTBI kolektiboaren jazarpenarekin eta diskriminazioarekin loturiko kontuengatik Espainian errefuxiatu-izaera lortzeko eragozpen ugariak edota, behin lortutakoan, herrialdean gizarteratzeko zailtasunak.

Azkenik, SOMOS kolektiboko Juanita Obonok aditzera eman zuen Ekuatore Ginean emakume homosexualak ez dutela giza eskubiderik eta Estatuak babesa ukatzen diela. Haren esanetan, diskriminazioa behin eta berriz eta etengabe pairatu ostean, andre homosexualak amore eman eta herrialdetik alde egin nahi izaten dute. Prozesu horretan, mediku batek gaixo gisa diagnostikatu ondoren, Elizak eta senideek emakumezko horien sexu-joerari ematen dioten erantzuna azaldu zuen: gizonekin sexu-harremanak izatera behartuz eta hainbat torturaren bidez, haiek "sendatzen" saiatzeko dira. Halere emakumeak homosexuala izaten jarraitzen badu, familiak kale gorrian uzten du.

Hiru hizlariak bat etorri ziren LGTBI emakumeek diskriminazio bikoitza jasaten dutela, hala beren generoagatik nola beren sexu-joeragatik. Gainera, gizarteak eta legeriak baztertu egiten dituzte, tratu txarrak ematen dizkiete eta babesik gabe uzten dituzte. Beren burua feministatzat jotzen dute, eta, gizarteratzeaz harago, pertsonak diren heinean merezi dituzten errespetua eta aitortzea aldarrikatzen dituzte. Azkenik, babestuko dituen lege baten beharra dutela adierazi zuten.



Hitzaldia:

Patriarkatua, politika eta emakumeen aktibismoa Sudango iraultza osteko garaian

- Hizlaria: Liv Tønnessen, Chr. Michelsen Institutuko (Norvegia) Ikerketa-zuzendaria.
- Orduetgia: 16:00-17:00
- Metodologia: hitzaldiak 40 minutuko iraupena izan zuen; gainerako denbora publikoaren galderak erantzuteko baliatu zen.

Hitzaldiaren laburpena:

Liv Tønnessen, egun, Sudango iraultzaren osteko patriarkatuaren, politikaren eta andrazkoen aktibismoaren gaineko ikerketa bat egiten ari da, Samia al-Nagar kide sudandarrarekin batera.

Sudango iraultzaren ondorengoa 2019an hasi zen, militarrek Omar al Bashir agintetik kendu eta boterea hartu zutenean. Iraultzak protestaldi luzeak izan zituen bereizgarri, non emakumeek, klase sozial eta belau-naldi orotakoek, funtsezko papera jokatu zuten.

Andreak beren generoagatik diskriminatzen zituzten legeak deusezta zitezten borrokatzen ziren. Horien adibide, emakumeen ordezkari-tzuzionalik eza eta eremu publikoetako parte-hartze eskas bezain mugatua. Nahiz eta hedabideek kaleetan zabalduriko protesta haiek ez dituzten asko dokumentatu, esan beharra dago emakumezko sudandarrak arteaz eta sare sozialez baliatu zirela. "Justizia, bakea eta askatasuna" da borroka feminista honen leloa, eta sexu-indarkeriagatik ondorio judizialak, erabakitze askatasuna eta gobernuan emakumeen ordezkari-tzuzgaldegiten ditu. Aldarrikapen guztiek modu esanguratsuan laguntzen dute Sudango nazio integral, indartsu eta inklusiboa eraikitzen.

Sudango iraultzaren osteko negoziazioetan, andrazkoak baztertu egin zituzten. Haien ordezkari bakarra, Miriam Sadiq al Mahdi, baztertu, gutxietsi eta ahoz eraso zuten, bai ikuspegi militarretik bai zibiletik. Emakumeen bazterketa justifikatzeko, hiru argudio nabarmenki patriarkalez baliatu ziren: kultura ez dago prestatuta emakumezko buruzagi



politikoak izateko; andrazkoak ez dira horretarako gai, eskarmenturik ez dutelako; eta emakumeek ezin dute arrazoimenez gobernatu, emozionalak baino ez direlako.

Bada, horixe inflexio-puntua izan zen andreentzat, eta protesta ugari antolatuta ziren. Aktibismo feminino horren adibide, Sudango 18 estatuetan abiatu zen kanpaina, sare sozialen bidez, prestatutako emakumeak aurkitzeko eta gobernu lanpostuetarako hautagai aurkeztu ahal izateko.

Ondorio gisa, Tønnessenek esan zuen Sudango iraultza ez dela amaitu, hango emakumeek egun aurrerapenaren alde borrokatzen jarraitzen baitute. Hainbat erakundetan aurrerapenak eta emakumeen iritziak txertatzea lortu bada ere, esparru askotan baztertuak dira oraindik ere; beraz, mobilizatzen jarraitzen dute, beren ahotsak entzunak izan daitezten.

Hitzaldia:

Emakumeen ugalketa-osasunerako eskubidea Kongoko EDn COVIDaren garaian

- Hizlaria: Anne Marie Tumba eta Julienne Ntumba Mumba doktoreak, Ugalketa-osasunerako Prorama Nazionala (Kongoko ED)
- Orduetgia: 17:00-18:00
- Metodologia: hitzaldiak 40 minutuko iraupena izan zuen; gainerako denbora publikoaren galderak erantzuteko baliatu zen.

Hitzaldiaren laburpena:



Anne Marie eta Julienne Kongoko Errepublikako Ugalketa-osasunerako Programa Nazionalako kideak dira. OMErekin, UNICEFekin eta gobernuz kanpoko hainbat erakunderekin batera, ugalketa- eta sexu-osasunarekin loturiko arazoei aurre egiten diete, estrategien, neurrien eta programen bidez.

Nerabeak osasuntsu egoteko arazo handia dago herrialdean, jaiotzean arazoak izaten direlako, hala

nola zailtasunak erditzean, deformazioak, konplikazioak abortua modu informalean egitean, etab.

Hori dela eta, hainbat neurri abiatu dituzte; besteak beste, haurdunaldia eteteko orduan adituengana jo ahal izatea, horrela arriskuak eta are abortuaren ondoriozko heriotzak gutxitzeko. Gainera, andreei eta familiei hainbat zerbitzu ematen dizkiete, familia-plangintza, adibidez, edo haurdunaldien jarraipena egitea, askatasunez erabaki, lagunduak izan eta egoera onean erditu ahal izateko. Halaber, familiei antisorgailuei buruzko informazioa ematen diete eta preserbatiboak haien eskura uzten dituzte.

Horrez gain, hizlarien esanetan, COVID-19aren pandemiak sexu- eta ugalketa-osasuna kaltetu du, sare sozialetan desinformazio handia eta zurrumurru ugari izan direlako eta horrek andrazko askori zerbitzu horiek baliatu ahal izatea zaildu dielako.

Mahai-ingurua:

Indarkeriarik gabeko bizitzarako lan-esperientziak

• Hitzaldiak:

“Gazteak, aldaketa-eragileak” Leticia James Lajay, BiriElat (Ekuatore Ginea)

“Sexu-indarkeria eskoletan” Bijou Banyaku, Mouvement Inspiration (Kongoko ED)

“Ezkontza barruko indarkeria: maitasunetik feminizidiora” Caroline Pindi Norah, Mille et Un Espoir (Kongoko ED)

“Emakumeen Etxea Kébémerrren” Aminata Thiobane, Emakume Legelari Senegaldarren Elkarte (Senegal)

• Moderatzailea: Jolie Mputela, IRDAS elkarte

• Ordutegia: 18:00-19:30


• Metodologia: hizlari bakoitzak 20 minutuko hitzaldia egin zuen; ondoren, 20 minutuz, publikoaren galderak erantzuten ziren.

Mahai-inguruaren laburpena:

Mahai-inguru honetako lau emakume parte-hartzaileek Saharaz hegoaldeko Afrikan andrazkoek eta neskatilek jasaten duten indarkeria-egoera azaldu zuten, norik bere ikuspuntutik.

Aurrena, Kongoko Errepublikako Bijou eta Caroline Afrikako emakumeek nozitzen duten indarkeriaz mintzatu ziren, biek Kongoko egoera ardatz hartuta. Alde batetik, Bijouk problematika horren jatorria azaldu zuen: emakume eskolatu oso gutxi eta haur zein nerabeek eskolan jasaten dituzten indarkeria-motak. Jazarpena eta sexu-abusuak, mehatxuak eta umiliazioak neskatilen egunerokoa dira eskolan, eta, ondoren, horren errua egozten diete. Arazo horri dagokionez gazteen artean kontzientziazio handiagoa sumatzen bada ere, oraindik asko dago egiteko. Beste alde batetik, Carolinek ezkontza barruko abusu- eta indarkeria-egoerei buruz hitz egin zuen. Indarkeria-mota bat baino gehiago dago eta, oro har, ziklo berari jarraitzen diote beti: maitasunean hasi eta feminizidioan amaitzen dira. Eskuarki, emakumeek ez dituzte antzematen ziklo horretako indarkeriaren lehen etapak, eta, gero, arazo handiagoa bihurtzen dira.

Kongoko andreak ez dute Gobernuaren babesik, ez baitago feminizidioa kondenatzen duen legerik. Hori dela eta, alde batetik, ez dago daturik, salaketa gutxi jartzen direlako; beste alde batetik, emakume horiek inolako babesik gabe daude, egoera zeharo zaurgarrian. Ondorioz, Mille et Un Espoir elkartearen eginkizuna da bai eskolan eta osasun-zentroetan prebentzioa zabaltzea bai hedabideetan emakumeen aurkako indarkeria hutsal dadin eragozteak. Horrez gain, elkarte harrera-etxe bat sortzea aztertzen ari da, emakume horiei babesak, laguntza eta arreta emateko.



Bigarrenik, Ekuatore Gineako Leticia Jamesek adierazi zuen gazteek funtsezko papera dutela gaur egun hain ohikoak diren indarkeria-mota hauek arintzeko orduan. Gazteak aldaketa-, garapen- eta ahaldu-eragileak dira; horretarako, haien ahots eta helburuak entzun egin behar dira. Horrenbestez, premiazkoa da baliabideak ematea, presuntuntza-mailako errefortzua eta haien eskubi-deen aitortzea, kasurako.

Azkenik, Aminatak, Kébémerrreko (Senegal) emakume legelarien elkarteko langileak, lehenago aipaturiko babes juridikorik eza berretsi zuen. Kébémerrreko aholkularitzak indarkeria-kasuak salatzen dituzten emakumeak hartu, entzun eta laguntza juridikoa ematen die, bai eta prozesu judizialarekin aurrera jarraitzeko beharrezko baliabideak ere. Laguntza hori guztia erabat doakoa eta konfidentziala da.

Ondorioak

II. Nazioarteko Mintegia – Emakumeen Giza Eskubideak Afrikan jardunaldian, kontinente horretako emakumeek bizi dituzten errealitate ugariak ezagutzeko parada izan genuen, haien jatorri, bizileku, sexu-joera edo gizarte- eta familia-ingurunearen araberakoak. Halaber, egiaztatu genuen bultzatzen ari diren borroka, mugimendu, kolektibo, erakunde eta ekintzak beren eskubideak eta gainerako emakumeen mundu-mailan are gehiago bermatzen laguntzen ari direla.

Aliantzak sortzea eta esperientzien nahiz ezagutzen berri elkarriz ematea gauzatu beharreko estrategia apartak dira, kontinentean giza eskubideen alde jarduten duten erakundeen eta erakunde feministen lana indartzeko. Sinergia eta ikaskuntza kolektiboak sortuz, herrialde edo eskualde batean ezarritako jardunbide egokiak beste herrialde edo eskualde batera eraman daitezke, han ere ezartzeko; hala, ezagutzak partekatuz, emakumeen giza eskubideak errespetatzeko eta bermatzeko helburua betetzen lagundu ahal izango dugu.

Ilido beretik, Afrikaren eta, bereziki, Afrikako

emakumeen gaineko bestelako iruditeria eraikitzea da EAEn lantzen jarraitu beharreko funtsezko alderdietako bat. Horretarako, hango andreak jasaten dituzten eskubide-urraketak ez ezik, bideratzen dituzten eta beren errealitatea eraldatzen laguntzen duten ekimenak ere nabarmendu behar dira, eta eginkizun hori "istorio bakarra" zabalatzeko arriskuan erori gabe egin behar dugu, Chimamanda Ngozi Adichie idazle nigeriarrek dioen moduan, alegia, kontinenteko hainbat eremu zein mailatako eta hainbat eskualdetako emakumeen eskutik.

Amaitzeko, II. Mintegi honetan parte-hartzaile aritutako emakume aditu eta ekintzaile guztiek beren borrokan eta aldarrikapenen alde duten konpromisoa irmoa nabarmendu nahi dugu: indarkeriarik gabeko bizitzaren alde, LGTBI eskubideen alde, osasun-eskubidearen alde, parte-hartze politikoaren alde... Konpromiso horrek Afrikaren eta Euskadiren arteko garapena sustatzen jarraitzera bultzatzen gaitu, eta lan hori genero-berdintasuna ardatz hartuta egitera.



Nazioarteko Elkartasuna
Solidaridad Internacional

